

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Kontratazio Mahaien osaera Osoko Bilkura kontratazio-organoa den kasuetan- Osaera aldatzea EHBILDU udal talde politikoak aurkeztutako idazkiaren ostean

2019ko uztailaren 5ean, Osoko Bilkurak Kontratazio Mahaiak osatzeko erabakia hartu zuen, Osoko Bilkura kontratazio-organo gisa agertzen den kasuetarako.

Kontuan hartu da EHBILDU udal talde politikoak 2021eko urriaren 13an aurkeztutako idazkia (sarrera erregistroko 13851 zk.).

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta alde aurretik Osoko Bilkurako Gaietan eta Mozioen Batzorde Informatibo Iraunkor Orokorraren irizpena izanda, Osoko Bilkurak hau

EBATZI DU

Lehenengoa. Aldatzea Kontratazio Mahaiaren osaera Osoko Bilkura kontratazio-organoa den kasuetarako, EHBILDU udal talde politikoak 2021eko urriaren 13an aurkeztutako idazkiaren ostean (sarrera-erregistroko 13851 zk.).

Aurrekoaren ondorioz, honako osaera hau izango du Osoko Bilkurari dagokion Kontratazio Mahaiak:

– Lehendakaria:

Alkate-udalburua edo haren eskuordetza hartzen duen funtzionarioa.

– Kideak:

A) EAJ-PNV udal talde politikoaren ordezkaria:

– Titularra: Joseba Amondo Escuza.

– Ordezkoa: Ander Larrínaga Saiz.

B) EHBILDU udal talde politikoaren ordezkaria:

– Titularra: Santiago Hernando Sáez.

– Ordezkoa: Lamia Arcas Nogales.

C) Udalbatzako idazkari nagusia edo haren eskuordetza jasotzen duen funtzionarioa.

D) Udalbatzako kontu-hartzaile nagusia edo haren eskuordetza jasotzen duen funtzionarioa.

E) Kontratazio publikoko teknikaria edo bere eginkizunak eskuordetzan hartzen dituen funtzionarioa.

F) Teknikari bat, kasuan kasuko kontratuaren gaiaren arabera.

– Mahaiko idazkaria:

Udalbatzako funtzionarioa.

Nolanahi ere, kontratazio-mahaien deialdiak jakinaraziko zaizkie ordezkariarik ez duten udal-talde politiko guztiei, jendaurrean jarduten den kasuetan bertaratu daitezen. Bilkura horietan, bertarutzen diren Udalbatzako kideek hitza hartzeko eskubidea izango dute, baina ez botoa ematekoa.

Bigarrena. Bere horretan uztea 2019ko uztailaren 5eko Osoko Bilkuran Kontratazio Mahaiaren funtzionamenduari buruz hartutako erabakia bere osotasunean eta ebazpen honen aurka ez doan guztian, Osoko Bilkura kontratazio-organoa den kasuetarako, eta eduki honekin:

Ahalmenak: Kontratazio Mahai honi dagozkio Laudio Udalak egindako Osoko Bilkuraren eskumeneko kontratuak, administratiboak zein pribatuak prestatzeko, adjudikatzeko eta be-tearazteko ahalmenak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2018 Legean, gainerako araudi aplikagarrian edota, hala badagokio, ordeztzen duen araudian adierazitakoaren arabera.

Funtzionamendu-arauak: Nolanahi ere, kide anitzeko organo gisa jarduteko, Sektore Publi-koaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete beharko du.

Eguna, ordua eta tokia: Osoko Bilkurari dagokion Kontratazio Mahaia egiteko honako egun eta orduak finkatzea:

- Asteartean, 12:30etik aurrera.
- Ostiraletan, 12:30etik aurrera.

Ondore horretarako, Udaleko arlo eta zerbitzu guztiek dute barne-aplikazio bat, eta bertan kontsultatu ahal izango dira beste arlo eta udal zerbitzu batzuek kontratazio mahaia egiteko gor-detako orduak. Aretoa eta ordua telefonoz erreserbatu beharko dira 808 zenbakira deituta edo, absentzia kasuetan, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ).

Osoko Bilkurari dagokion Kontratazio Mahaia 1. solairuko batzar aretoan egingo da beti, salbuespenezko egoeretan izan ezik eta, betiere, aldezturik jakinarazita.

Hirugarrena. Aditzera ematea erabaki hau udal-arlo guztiei, baita mahaikideei ere (titular zein ordezkoei). Halaber, erabaki hau Kontratazio Organoaren Profilean eta ALHAOn argitaratuko da, baita Udalaren webgunean ere.

Laudio, 2021eko urriaren 28a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE